

Zihara Jainaga Larrinaga *Leioa*

Elikadura ingurunearen errealtatea islatzen duten argazkien bidez, herritarrei ahotsa eman nahi izan die Fotovoz Bilbo proiektuak. Leyre Gravina (Donostia, 1981) EHUko irakasle eta ikerlaria izan da egitasmoaren koordinatzailea: haren helburu nagusia izan da hirian elikadurarekin erlazionatuta dauden faktoreen diagnostiko bat egitea. Horretarako, testuinguru sozioekonomiko ezberdina duten Bilboko hiru auzo aukeratu dituzte.

Nola fotografiatzen da elikadura ingurunea?

Inguratzen gaituzten faktoreek gure elikaduran duten eraginari deritzo elikadura ingurunea. Herritarrok etxetik kanpo aurkitzen dugun guztiak osatzen du, kalean inguratzen gaituen edozer da ingurune horren parte. Esaterako, kaleak, jatetxeak zein publizitatea bertako elementuak dira. Hori horrela, elikadurarekin zerikusia duenari argazkiak ateraz, ingurunea antzemateko gai gara. Era horretan, ikerlariok hiritarrek nola elikatzen diren, elikadurarekin nola erlazionatzen diren eta nola sozializatzen diren aztertu ahal izan dugu. Gure ustez, inguratzen gaituenak gure jokaeretan eragiten du.

Bilboko hiru auzo aukeratu dituzue. Zergatik hiru horiek?

Deustu, Uribarri eta San Frantzisko auzoak oinarritzko hiru arazoetatik aukeratu genituen. Batetik, herritarren partaidetza handia dute, hau da, herritarrek era aktiboan jarduten dute auzoko elkarteetan. Bestetik, euren arteko ezberdintasun sozioekonomikoak nabarmenak dira. Datuen arabera, Deustu da egoera ekonomiko onena duen auzoa, eta San Frantzisko, aldiz, okerre-na duena. Datu horiek erabiliz, hiriko espertso sozioekonomiko osoa lortu dugu. Azkenik, kontuan izan dugu auzo horiek Bilbon kulturalki eta historikoki adierazgarriak direla, hein batean Bilboren errealitatea islatzen dutelako.

Hiru auzoak aztertuz, Bilboko elikadura ingurunea zertan oinarritzen da?

Sei faktore hartu behar dira kontuan: ohitura txarrak, kultur aniztasuna, merkatuaren eraldaketa, giza harremanak, eskasia eta ohitura osasuntsuak. Aztertutako hiru auzoetan testuinguru sozioekonomikoa desberdina bada ere, denak bat datoz ohitura onak dituztela. Herritarrek bada-kite ondo jan dezaketela, kalitatea badagoela.



JUNE PRIETO / FORU

«Herritarrek badakite ondo jan dezaketela, kalitatea badagoela»

Leyre Gravina • Fotovoz Bilbo egitasmoaren koordinatzailea

Testuinguru sozioekonomikoaren arabera, elikadura ohiturek zenbateraino eragiten duten aztertu nahi izan dute Bilbon. Horretarako, hiru auzo aukeratu dituzte, eta inguruneari argazkiak atera dizkiote.

Ez daude, baina, ohitura txarretatik salbu.

Ohitura txarrei dagokionez, oro har, elikagai azukredun asko jaten dutela aitortu zuten parte hartzaileek. Are gehiago, arrazoi kultural bat dagoela zioten, eta sarritan sari gisa erabiltzen direla. Janari lasterraren kontsumoa ere aipatu zuten. Hori horrela, herritarrek ariketa fisikoa egitera ohitu daitezten, auzoetan ekintzak antolatu behar dira.

Auzoetako dendek zenbateraino eragiten dute elikadura ingurunean?

Auzoetan bizi den jendearentzat, denda txikiak garrantzi handia dute euren egunerokoan. Ikerketan parte hartu dutenek denda horietan saltzailearekin izaten duten tratua pertsonala nabarmendu dute, merkataritza zentro handietan ikusten ez dena. San

Frantziskoko bizilagunen esanetan, adibidez, kalean janaria ikusteak gehiago jatea eragiten die. Horrez gain, harro daude euren auzoko dendez; gehienak, gainera, etorkinek kudeatzen dituzte, eta elikagaien kalitate-prezio erlazioa ona dela adierazi dute.

Merkataritza zentro handiek zenbateko kaltea egiten diete auzoei?

Uribarrin, adibidez, kale berean merkataritza zentroak eta denda txikiak aurki daitezke, eta haien arteko bizikidetzak ona da. Hala ere, auzotarrek hori positibotzat dute, beraien artean lehia handiago dagoelako. Prezioak lehiakorragoak direnez, auzotarrek asko baloratzen dute harategiek edota arrandegiek bizirik irautea.

Bilbon dagoen aniztasun kulturalak ere izango du zeresana.

Hiru auzoetako partaideek azpi-

marratu dute migranteek eragin handia dutela elikadura ingurunean. Hori atzerriko produktuak saltzen dituzten tokiko dendek presentziak islatzen du. Horrez gain, elikadura eta nazioarteko produktuak komunikatzeko era bat direla diote, bidaiatzeko era bat, baina bidaiatu ordez, bertan ezagutzen. Uribarrin, esaterako, hasieran beldurrez hartu zituzten nazioarteko produktuak dituzten dendak, baina komunitatearen parte diren heinean, itzela iruditzen zaie beste mota bateko produktuak eskuragarri edukitzea.

Zein eragin du pintxo poteak?

Harreman sozialei erreparatzen badiegu, Euskal Herrian ohikoa da jendea mahaiaren inguruan batzea. Pintxo potea, hein handi batean, sozializatzeko era bat da, eta elikadura ingurunearen parte

ere bada. Baina bertan eskaintzen den janaria ez da uste bezain osasungarria, eta prezioek ere ez diote mesede egiten. Uribarri auzoan, esaterako, moda hau hasi aurretik, kaleak hutsik egoten ziren; egun, aldiz, ostegunero lepo betetzen dira. Eragin nabarmena du, hortaz: jendea kalera ateratzen da, eta kontsumitu egiten du.

Deustu eta Uribarrin, esaterako, ingurune fisikoan aldaketak gertatu behar direla ondorioztatuz duzue egin duzuen ikerketan. Zer esan nahi duzue horrek?

Deustu azpiegiturekin zerikusia duten faktoreei ematen diete garrantzia. Egoera sozioekonomikoa hobe denez, haien premiak

«Pintxo poteak eragin nabarmena du elikadura ingurunean: jendea kalera ateratzen da, eta kontsumitu egiten du»

«San Frantziskoko auzokideak kexu dira, auzoan sortzen ari diren modak ez dituztelako ordezkatzen»

gune publikoak hobetzea edo berritzea dira: tabernetako pintxo-en higiena hobetzeko neurriak hartzea, hondakin organikoak kudeatzeko erraztasunak izatea, edota kaleko espazioak ume eta nagusientzako moldatzea. Uribarrin, bestalde, hirigintza aldetik ez dago adinekoentzat eta haurrek dituzten familientzat egokitutako espaziorik.

San Frantziskon beste behar batzuk al daude?

San Frantziskon ere aldatu behar-kor litzateke ingurune fisiko. Baina aldaketa horiek beharizan ekonomikoekin lotuta doaz, eta, bertako herritarrei beharrezkoagoa iruditzen zaie denda txikiak babestea, kaleko eremuak aldatzea baino. Horrez gain, San Frantziskoko arazo nagusia kolektibo batzuen integrazioa eza da; elikaduraren alorrean, kolektiboen arteko bizikidetzak falta dela. Hala ere, auzoaren irudi soziala hondatuta dagoela diote.

Azkenaldian, baina, auzoan aldaketa handia gertatu da: ez dago lehen bezain baztertua.

Hala da, baina bitxia bada ere, bertako auzokideak ez daude batera pozik egoera horrekin. Euren auzoan gentifikazioa gertatzen ari dela salatzen dute, eta kexu dira sortzen ari diren moda berriek ez dituztelako ordezkatzen. *Marzana* eta *Bilbi* esaten dieten eremuetan eskaintzen diren zerbitzuak kanpotik datozenentzat direla iruditzen zaie.